

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Ostirala, 2011ko ekainaren 17a. VIII. urtea. 2.246. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Ezkerretik eskubira Villabonako alkatea, Galder Azkue, Zizurkilgoa, Jose Maria Luengo, eta Patxi Altuna eta Arantzazu Azpiroz. E. MAIZ

100 bat txirrindulari espero dituzte nesken Sari Nagusian

Nesken Zizurkil-Villabona VII. Sari Nagusia txirrindulari proba igandean izango da; 10:00etan irtengo dira Zizurkil behetik

Irteera baino lehen kirol honi oso lotuta dagoen Patxi Alkorta omenduko dute; plaka eta lore sorta bat emango dizkiote

Eskualdeko ordezkari-tza zabala Euskal Herriko III. Bakarkako Segala Ligaxkan

Lehiaketako hirugarren eta azken ekitaldia Baliarrainen izango da bihar, 18:00etatik aurrera; bertan erabakiko dira Europako Txapelketara joango diren ordezkariak

Iparraldeko eta Uroka Kostako produktua erosteko aukera bihar, Tolosako Azoka Berezian

09:00etan hasiko da Trianguloan egongo den azoka; graffiti erakustaldia eta sagardo dastatzea ere izango dira

Oreka TX, Aziza Brahim eta Alurr-en Sahararen aldeko emanaldia izango da bihar

Tolosako plaza Berrian 22:30ean izango den kontzertuak agurtuko du Tolosaldea Sahararekin elkarrekin antolatzen duen 'Maiatza borrokan' kanpaina; herri sahararraren aldeko karabana 10:00etan irtengo da

Gaur hasiko dira Ibarako Gazte Festak

19:00etan botako dute herriko gazteek jaiei hasiera emateko txupinazoa; igandera bitarte ekitaldi ugari izango dira, tartean gaurko Gose eta Dolce Tanganaren kontzertuak

tolosaldea.hitza.info

herrietako informazioa inoiz baino gertuago ezagutu gure webgune berriak

ibarraldea.hitza.info • alegialdea.hitza.info • anoetaldea.hitza.info • villabona-aiztondo.hitza.info • leitzaldea.hitza.info • tolosa.hitza.info





Aziza Brahim, Oreka TX eta Alurr-ekin batera eskainiko du, bihar, kontzertua. HITZA

Aziza Brahim, Oreka TX eta Alurr-en kontzertua izango da bihar, plaza Berrian

Herri sahararren aldeko karabana goizeko 10:00etan irtengo da suhiltzaileen parean dagoen aparkalekutik

Itzea Urkizu

Tolosaldea Sahararekin elkartak duela hilabete inguru aurkeztu zuen *Maiatza borrokan* egitaraua, bihar amaituko da euskal karabanaren irteerarekin, eta kontzertu batekin.

Herri sahararren aldeko euskal karabana hamabosgarren aldiz irtengo da Euskal Herritik. Beti bezala, kanpamenduetara elikagaiak eta oinarritzko materiala biltzea izan du helburu kara-

banak: Arroza, lekaleak, pasta, hegaluzea oliotan, azukrea, konpresak, olioak eta helduentzako pardelak. Antolatzaileek azaldu dutenez, gainera, aurtun sekula baino janari gehiago beharko dute, Libian zeuden ikasle sahararrak kanpamenduetara itzuli baitira; 8.000 ume gehiago izango dira, beraz, kanpamenduetan.

Bihar, ekitaldi ofiziala goizeko 10:00etan hasiko da, Tolosako suhiltzaileen aurrean dagoen

Kontzertuan irudiak, argiak eta soinua izango dira, dantzaz lagunduta

aparkalekuan. Bertan izango dira Ibai Iriarte Tolosako alkatea,

Polisario Fronteak Euskadin duen ordezkariak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskal Fondoak eta Herri Sahararren aldeko elkartetako ordezkariak. Jarreraian, hiru kamioi eta furgoneta bat, Alacant aldera abiatuko dira.

Honen ondoren, 11:30ak aldera, futbol partida jokatuiko dute Uzturpe frontoian, sahararrek tolosarren aurka.

Kontzertu multimedia gauean *Maiatza borrokan* kanpaina boroiltzeko, 22:30ean kontzertua izango da Plaza Berrian, Euskal Fondoaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Tolosako Udalaren laguntzaz.

Mendebaldeko Sahararen aldeko ekitaldi honetan, soinua, argia eta irudiak izango dira ikusgai. Taula gainean, Oreka TX musika talde euskalduna eta Saharan erreferente bilakatu den Aziza Brahim abeslaria eta bere taldea ariko dira. Ibarako Alurr dantza taldeak, berriz, dantza egingo du oholtza gainean.

• tolosa@hitza.info

Solstizioa ospatuko dute naturan eta musika doinuekin

Urteroko moduan, datorren asteazkenean Et Incarnatus orkestrak solstizio kontzertua eskainiko du Urkizun

I. Urkizu

Beste urte betez, eta hamabigarraren aldiz, Et Incarnatus orkestrak udako solstizioa ospatzeko kontzertua eskainiko du Iraolako Zuloan.

Mendikuteran magalean dago leku hau, Tolosako Urkizu auzoan, eta belaze eta pagadiz inguruta eskainiko dute kontzertua.

Antolatzaileek oinez edo autoz bertara iristeko bideak argitu nahi izan dituzte. Oinez joan nahi duenak, Urkizu auzora doazen bideak hartu beharko ditu: Soldadu

kaletik edo San Esteban auzotik dute irteera. Behin Urkizura iritsita, Ernio mendira doan bidea hartu behar da, telekomunikazio antenaren oinarria iritsi arte.

Kontzertura autoz joateko asmoa dutenek, berriz, Tolosan, Olarrain auzoan, Azpeitiara doan errepidea hartu beharko dute. Bide honen hasieran, eskuinean Urkizu auzorako bidegurutzetako bat dago, eta hemendik jarraitu beharko dute, ermita eta taberna dauden gunera iritsi arte. Hau atzean utzi, eta bertatik eskuinean ateratzen den porlanezko bigarren bidea hartu beharko dute, antenaren oinarria dagoen lekura iritsi arte. Antolatzaileek, dena den, autoa Urkizun bertan utzi eta oinez joatea gomendatzen dute. Kontzertu amaieran, bertaratuentzako mokadutxoak eta edaria izango dira.



Urtero, jende mardoa joaten da kontzertua ikustera. HITZA

→ Laburrak

Tolosa & Co-ren bilera ospatuko dute, gaur

MERKATARITZA › Gaur, 13:15ean, Visa fidelizazio txartela erabiltzeko izena eman duten elkarteko merkatarien zatitza bilerako oso garrantzitsua izango da, Kultur Etxeko areto nagusian.

Azterritarren gaineko legearen informazioa

GIZARTEA › Datorren ekainaren 21ean, asteartean, atzerritartasunaren gaineko legeari buruzko informazio saioa egingo dute, Kultur Etxean. Saioa 18:00etatik 20:00etara bitartekoa izango da, eta atzerritarrei euri, nahiz atzerriko pertsonekin harremanetan daudenei zuzendua da. Tolosaldea Garatzen eta Eusko Jaurlaritzaren Inmigrazio Sailak antolatuta, abokatu batek atzerritartasunari buruzko araudiaren inguruan hitz egingo du (bizitzeko eta lanerako baimenak, familiarak, ikasleak, nazionalitatea, zigorrak, kanporatzeak, pertsona komunitarioen eta senideen araudia, eta abar), eta bertaratuaren galderak erantzuniko ditu.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta
Bataioak, Jantziak...

Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

↓ **Kirol jarduera****BIHAR, HILAK 18**

Usabal, goiko kantxa.
Infantilen VI. San Joan
Eskubaloitxapelketa

- 10:00etan: Arrate-Bergara.
- 10:30ean: Huarte-Leizaran.
- 11:00etan: Huarte-Bergara.
- 11:30ean: El Pilar-Tolosa.
- 12:00etan: Anaitasuna-El Pilar.
- 12:30ean: Tolosa-Bidasoa.
- 16:00etan: Finalerdiak hasiko dira.
- 18:30ean: Finala.

Usabal, beheko kantxa.
Infantilen VI. San Joan
Eskubaloitxapelketa

- 10:00etan: Tolosa-Anaitasuna.
- 10:30ean: Bidasoa-El Pilar.
- 11:00etan: Bidasoa-Anaitasuna.
- 11:30ean: Leizaran-Arrate.
- 12:00etan: Bergara-Leizaran.
- 12:30ean: Arrate-Huarte.

Usabal, igerilekua.

- 10:00etatik 13:00etara. San Joan Txapelketa.

ETZI, HILAK 19

Usabal, goiko kantxa.

- 09:30etik 13:00etara. Gimnasia erritmika.
- 09:30etik 13:00etara. Futbol eskola.

Irudia**URKIZUN GRABAKETAN**

Imanol Arias eta Juan Echanove aktoreak Tolosan izan dira, TVEko *Un país para comerselo* saiorako atal berria grabatzen. Espainian egin ohi dituzte grabaketak saio honetan, baina oraingoan, Euskal Herrira etortzea erabaki dute. Tolosan Urkizuko Alurtxiki Elkartearen Roberto Ruiz sukaldariak prestatuta babarrun jatea egin zuten. Bi bertsolariren laguntza ere izan zuten bazkaltzerako unean. Ondoren, urkizuarrekin argazkia atera zuten. HITZA

Sanjoanak iragartzeko Azoka Berezia egingo dute

Asteburuan hamaika ekitaldi egingo dituzte Tolosako kaleetan; San Joan jaiak ostegunean hasiko dira

Asier Imaz

Iparraldeko eta Urola Kostako produktuekin osatuko dute bihar Azoka Berezia, Triangulua plazan.

Iaz, Urola Kostako ekoizleak gonbidatu zituzten ekimenean parte hartzeraz. Halaber, 2010ean martxan jarritako egitasmoarekin jarraituz, helburua, gertuen dauden produktuak eta proiektuak bultzatzea da. Honela, Euskal Herriko hainbat eskualdeetako ekoizleek bisitatu ahal izango dute gure merkatua, eta bide batez, ezagutzera eman gure eskualdean, beraien produktuak. Aurtengo gonbidatu bereziak Iparraldeko ekoizleak dira. Hala, aipatzekoa da Andere Nahia emakume enpresariaren elkar-tearen lankidetzak. Izan ere, Iparraldeko ekoizleetak bi bertako kide dira, eta haiek eskainitako laguntzari esker, Tolosako azokan izango dira larunbatean.

25 ekoizle inguruk jarriko dituzte postuak Triangulua plazan, eta era guztietako produktuak eskainiko dituzte: Entsaladak, txerrikiak, barazkiak, txakolina, ogia, eztiak, itsas kontserbak, gazta, baxerak, ahatekiak, euskal pastela...

Getariako produktuak

Salmenta postuekin batera, beste gune berezi bat ere izango da plazan. Itsaslar Gourmet Getaria elkarteko ekoizleak etorriko dira, beraien produktuek ezagutzera emateko. Horretarako, hainbat pintxo prestatuko dute, eta hauek dastatzeko aukera izango da. Hala, sei pintxo osatutako menua eskainiko dute, pintxo bakoitza ekoizle bakoitzari lotuta egongo delarik.

Menua 6 eurotan salduko da, baina pintxoak banaka erosi nahi dituenak 1,20 euro ordainduz izango du aukera.

Bestalde, elkartekideen produktuekin egindako otar bat zozketatuko da larunbateko azokan. Otar hau, 280 eurotan baloratua dago, eta egunean bertan zozketatuko da 14:00etan, aurrez, azoka gunean zein pintxoak salduko diren gunean erosi ahal izango dira zozketarako txartelak.

↓ **Egitaraua****BIHAR, EKAINAK 18**

- **09:00etan.** Goizean zehar Azoka Berezia.
- **09:00etan.** Graffiti erakusketak, herrian zehar.
- **10:30ean.** GiroArte dultzaina taldea kalez-kale.
- **19:00etan.** Berdura plazan Sagardo Eguna, Batasuna Elkartea antolatuta.
- **22:30ean.** Saharako herriaren elkartasun emanaldia, Plaza Berrian.

ETZI, EKAINAK 19

- **09:00etan.** Truke Eguna Zerkausian, Denbora Bankuko emakumeek antolatuta.
- **10:00etan.** Xake Jokoa kultur etxean, Tolosako Xake Elkartea antolatuta. XXXVIII. Nazioarteko Lehiaketa taldeka, XXXV. Enrique Pinedaren oroimenezkoa.
- **13:00etan.** Hodei Truk abesbatzaren kontzertua Berdura plazan.

Irudia**HODEI TRUKEN EMANALDI BERRIA**

Hodei Truk abesbatza pasa den asteburuan Ciudad Realen egon zen (argazkian), Tomellosoko Kontserbatorioko abesbatzak antolatutako II. Gazte abesbatzen topaketan. Igande goizean izan zen tolosarren kontzertua eta oso arrakasta-

tsua izan zela azaldu dute. Etxera itzulita, etzi, hilaren 19an, Tolosako San Joan jaien egitarauaren barruan, Tolosako Berdura plazan 13:00etan emanaldia eskainiko dute, eta herritar guztiak bertara gonbidatu dituzte. HITZA

Iragarki laburrak**LANA**

- **Ile apaintzailea.** Tolosako ile apaindegi batek, esperientzia-dun pertsona bat behar du lanaldi osorako. Interesa dutenek, dei dezatela 625 70 50 59 telefono zenbakira.
- **Zerbitzaria eta sukaldaria.** Tolosako ostalaritza zentru batean, zerbitzari bat eta sukaldari bat behar dituzte udan lan egiteko. Ezinbestekoa da espe-

rientzia izatea. Lanaldia osoa, goizez eta arratsaldeaz. Interesatuak, bidali curriculum, info@mujika.net helbidera.

ALOKAIRUAN

- **Etxebizitza.** Peñiscolan, itsasertzean dagoen etxebizitza alokagai, udarako. Urbanizazioan, kirola eta aisirako ekipamentuak daude. Interesatuak deitu 690 06 76 45 zenbakira.

Kadete, junior eta eliteko nesken Euskadiko Txapelketa jokatu da

Zizurkil-Villabona VII. Sari Nagusia izango da igandean 10:00etan; aurten irteera Zizurkilen izango da

Eneritz Maiz Zizurkil/Villabona

Neska txirrindularien VII. Sari Nagusia izango da Zizurkil eta Villabona artean. Igandean izango da, eta bertan kadete, junior eta elite mailako neska txirrindulariek parte hartuko dute. Goizeko 10:00etan emango zaio irteera Zizurkilen eta helmuga Villabonan izango dute. Maila bakoitzeko txirrindulariek, itzuli kopuru ezberdina izango dute.

Galder Azkue Villabonako alkatea, Jose Mari Luengo Zizurkilgo alkatea eta Patxi Altuna eta Arantzazu Azpiroz txirrindulari ohia izan dira lasterketaren nondik-norakoak aurkezten.

Dagoeneko zazpigarren urteaz antolatuta dute neska txirrindularien lasterketa. Gipuzkoa mailan, ezaugarri hauek dituen lasterketa bakarra da. Gure eskualdean

antolatzen da, eta «gustura» agertu dira antolatzaileak, eta baita udal ordezkari berriak ere.

Jose Mari Luengo Zizurkilgo alkateak «eskerrak» eman dizki antolatzaile lanetan ibili den jende guztiari. Azken urteetan, lasterketa hau aurrera ateratzeko Villabonako Udalak egiten duen ahalegina ere azzimarratu du.

Villabonako Udalak duela hiru urtetik laguntzen du lasterketa hau antolatzen. Galder Azkue Villabonako alkateak herritarrek eta txirrindularizaleak animatu nahi izan ditu igandean, kalera atera eta probaz gozatzeko. Azkuek ere «eskerrak» eman nahi izan dizkie antolatze lanetan diharduten guztiei.

100 bat txirrindulari

Kadete, junior eta elite mailako neska bilduko dira, eta lasterketa honetatik aterako dira Euskadiko txirrindulari txapelkunak. Estatu mailatik ere txirrindulariak etorriko dira lasterketan parte hartuz; Murtzia, Extremadura, Madril edota Salamancatik, hain zuzen ere.

Guztira 80-100 txirrindulari

izango direla azaldu du Altunak. Era berean, ibilbidea aldatu egin dutela agertu du; aurreko urteetan Urnieta aldera joaten ziren txirrindulariak, eta aurten horren ordez, Adunara igo beharko dira.

Zizurkil eta Villabona artean prestatu dute itzulia: Zizurkil behetik aterako dira, eta Asteasu, Zizurkil gora, Adunako bidegurutzea eta Villabona artean itzuliak egin ostean, kadeteek behin igo beharko dute Adunara, juniorrek bi aldiz eta elitekoek hiru aldiz igo beharko dute. Guztiak helmuga Villabonako Kale Nagusian izango dute.

Talde indartsuak etorriko dira, eta euskaldun izen handien artean Eneritz Iturriagaetxerria, Irene eta Ana Usabiaga izango dira. Baita tolosarra den Irupe San Sebastian, eta kadeteetan berri, Ane Iriarte billabonarra ere.

Zizurkilen irteera eman baino lehen, txirrindularitzari oso lotua egon den Patxi Alkorta omentuko dute. Familiarekin hitz egin ostean, omenaldi xumea egingo diote, plaka eta lore sorta bat eskainiko dizkiotelarik.



Irene Usabiagak jantzi zuen txapela. SARA GOMEZ

↓ VII. SARI NAGUSIA

EKAINAK 19, IGANDEA

■ **Irteera.** 10:00etan Zizurkil Behetik aterako dira, Asteasu alderantz.

■ **Helmuga.** Maila guztiak Villabonako lru-Aldeta bidegurutzean amaituko dute. Kadeteak 10:59ak aldera iritsiko dira, juniorrak 11:41ak aldera eta elitekoak, 12:05ak inguruan bukatzea aurreikusten dute.

■ **Ibilbidea.** Zizurkil, Asteasu, Zizurkil Goia, Adunako bideguru-

tzea, eta Villabona izango da itzulia. Hiru itzuli ematean, Adunara igo beharko dute, jarraian Villabonan bukatzeko. Kadeteek behin egingo dute. Juniorrek, bost itzuli egin beharko dituzte Aduna bi aldiz igoz; eta elitekoek sei itzuli egingo dituzte eta Aduna hiru aldiz igoko dute.

■ **Kilometroak.** Kadeteek, 39,6 kilometro egingo dituzte; juniorrek 67,9 kilometro; eta elitekoek, 83,4 kilometro izango dituzte egiteko.

Ate irekien jardunaldia «arrakastatsua» izan da

Billabona Futbol Kirol Elkarteak antolatu du eta 70 haur elkartu dira ate irekien egunean, Arratzainen

E. Maiz Villabona

Larunbatean, Arratzaingo futbol zelaian, Billabona Futbol Kirol Elkarteak ate irekien jardunaldia egin zuen 70 haurrekin. 2000-2003 urteen artean jaiotakoak ziren,



eta hurrengo urtean futbol eskola zer izango den jakiteko aukera izan zuten.

Entrenamendu saioa, klubeko entrenatzaileek eta futbol eskolako hainbat begiralek antolatu zuten. Billabona FKEK, «eskertu» egin nahi du, bertatik atera diren, eta gaur egun Errealean dauden, hiru jokalarien parte-hartzea; Iñigo Sarasola, Aitor Kastro eta Unai Etxeberria bertan izan ziren.

Haurrak entrenatzen ari ziren bitartean, gurasoek eskolaren asmoak ezagutu zituzten eta bertan zalantzak argitzeko aukera izan zuten. Klubaren aldetik «helburuak bete zirela» jakinarazi dute eta bertara gerturatu zirenak ere «oso gustura ibili zirela» uste dute.

Futbol Eskolari dagokionean, baimenaren zain dago kluba, eta hau jasotzen duenean izen-ematea zabaltzeko asmoa dute. Klubak uztailean aste betez apuntatzeko aukera emango du, eta baita irailean ere.

Egun berean, denboraldiko amaierako bazkaria egin zuen sagardotegian. Bertan 200 lagun in-



Gazte ugari bildu zen ate irekierara; baita taldetik pasa diren eta Errealean jokatzeko dutenak ere. HITZA

guru elkartu ziren: Klubeko jokalariek, jokalaria ohia, gurasoak, entrenatzaileak, zuzendaritza,...

200 lagun bazkaltzen

Aurten zuzendaritza berri bat osatu da eta bazkari osteko ekitaldiaren hasieran zuzendaritza berria aurkeztu zuten. Orain arte lanean ibilitakoei «esker ona» adierazteko, oroigarri gisa, taldeko kamiseta bat bere izenarekin eman zieten.

Ondoren, talde guztien urteko errepaso egin zuten eta berri-



Jokalarri erregularrenak. HITZA

kuntza gisara, maila bakoitzeko jokalarri erregularrenaren sariak banatu zituzten. Alebinetan Ion Jauregi, infantiletan Iñaki Artoia, kadeteetan Andoni Ugarte eta jubenil mailan Kepa Iguaran izan ziren saria jaso zutenak.

Azkenik, ohi den bezala jubeniletan amaitzen dutenei ordulari bat oparitu zioten oroigarri gisa. Aurten oroigarri hori jaso zutenak Ruben Garcia, Yari Alvarez, Ibai Mujika, Beñat Karrera, Beñat Ugarteandia eta Eneko Amondarain izan ziren.

Nazioarteko eran egiten den txapelketaren ekitaldi erabakiorra, bihar

Europako Sega Txapelketara Euskal Herritik zein joango diren erabakiko da Baliarraingo San Joanen

Imanol Garcia Baliarrain

Euskal Herriko III. Bakarkako Sega Ligaxkaren hirugarren ekitaldia izango da jokoan, bihar, Baliarraingo San Joan atsedendekuen ondoko zelaietan.

Ligaxkako hirugarren eta azken ekitaldia izango da, eta bertan erabakiko da Europako Sega Txapelketara joango diren euskal ordezkariak. 18:00etan hasiko da saioa.

Guztira 35 segalari inguru ari dira parte hartzen txapelketan,



Joxe Gabirondok orain bi urteko ligaxka irabazi zuen. HITZA

horietatik asko Tolosaldekoak. Besteak beste, Joxe Gabirondo (Gaztelu), Jokin Garmendia (Baliarrain), Oier Urkola (Anoeta), Mikel Alkorta (Asteasu), Garikoitz Etxeberria (Amasa), Arkaitz Arteaga (Baliarrain), Joakin Garmendia (Anoeta), Igaro

Balda (Hernialde), Garazi Ezeiza (Ibarra), Ainhoa Galarraga (Ibarra) eta Ainara Otamendi (Ibarra) ariko dira. Gizonezkoetan, helduen mailan, 100 m2 moztu behar dituzte, eta gazteen mailan 35 m2. Emakumezkoetan, helduek zein gazteek 35 m2 moztuko dituzte.

Ekitaldi gosez dago Akelok guraso elkarte

Orain arte antolatutako ekitaldiek jasotako erantzuna ikusita lanean jarraitzeko gogoz agertu dira gurasoak

R.C. Amezketeta

Amezketako Zumadi eskolako Akelok guraso elkarteak azkenaldian antolatutako ekitaldien berri eman du. Era berean, hauek izandako erantzuna ikusita ekitaldi gehiago antolatzeko «gogoa

areagotu» zaiela diote, eta berriro ere saiatuko direla «denon beharrei begiratu eta ekitaldi politik antolatzen» argitu dute.

Ekitaldiei dagokionez, maiatzaren 21ean 80 bat lagun joan ziren Saka baserrira.

Ekainaren 8an, aldiz, *Arratsaldea bizikletaz* izeneko ekimena burutu zuten; boluntarioak elkartu, frontoian sartu eta zirkuitu moduko bat egin zuten. «Arratsalde honek arrakasta izan zuen, frontoia bete bete zegoen», argitu dute Akelok guraso elkarte kideek.



Maiatzaren 21ean joan ziren Saka baserrira. HITZA

Gutunak

Eskerrak Txalburu eskolatik

Joan den igandean Eskola Txikien Festa ospatu genuen Abaltzisketan.

Urte osoa egun handi hori prestatzen jardun ondoren, heldu zen gure lanaren fruituak jasotzeko ordua.

Lanerako jende askoren beharrea ginen eta erantzun ezin hobeago jaso genuen.

Beraz, dena prest zegoen eguna aurrera ateratzeko. Eguraldia genuen aurreikusitako ezinezakeen bakarra eta hori ere portatu zitzaigun.

Gauzak horrela, jende ugari gerturatu zen festara bertan egun eder bat pasatzeko asmoz, hurbildu zen jende guztiari eskerrak ematea besterik ez zai-gu geratzen.

Beraz, mila esker lan egin eta etorri zineten guztiok.

■ Txalburu eskola. Abaltzisketa.

Eskerrik asko Berastegi

Bi hilabete dira baserria erretzaitzaila. Ustekabeko suak, hiru orduetan, baserria kiskali zizun. Bi hilabete hauetan, gure familiak jaso duen laguntza ikaragarria izan da.

Ezin asmatu gabiltza nola eskertu guztiei eskaini diguzuena.

Berastegiko herriari esker berezia eman nahi diogu, une gogor hauetan azaldu duzun laguntzeko gogoarengatik. Eskerrak ere, larunbatean antolatutako festan ederragatik. Herriko gazte eta eragile ezberdinei (Udala, Urepel biltokia, Basurde elkarte, Eliza, Guraso Elkarte eta Aidanean kultur elkarte) eskerrik asko bihotzez. Baita festara hurbildu zineten guztiok ere. Askok izan zarete, asko, elkartzasuna adierazi diguzuenak. Eskerrik asko denoi.

■ Antziola baserriko familia. Berastegi.

Toloalden «berdin eta garaiz» jokatu dutela esan du Iñurritak

Toloaldeko bizilagunek herrian zabalduak buruz azalpenak eman zituen alkate ohiak azken osoko bilkuran

I. Garcia Amezketeta

Amezketako Udalak aurreko legealdian egin zuen azkeneko osoko bilkuran, orduan alkate zen Jesus Iñurritak Toloaldeko bizilagunek herrian zabalduak informazioetaz azalpenak eman zituen, bilkuraren aktan jasotzen denez. Toloalde auzoko bizilagun batek obrak egin zituen eta gai horietan «udalak izaten duen jorkaera» azaldu zuen Iñurritak: «Baimena eman eta bideak erabi-

li ondoren, udal batzordeak ikusten ditu bide publikoan egindako galerak eta baimena eman zaionari jartzeko zaizkio egin beharrekoak eta epeak konpontzeko».

Kasu horretan «berdin eta garaiz jokatu dugula esatea dauka-gu eta konprobatu liteke», azaldu zuen alkate ohiak. Toloaldeko zenbait auzokideek konponketa gehiago egitea eskatzen zuten udalarekin egindako bileran. Iñurritak zehaztu zuenez, «beste gauza bat da gure erantzuna bileran, ez zela izan beraiek nahi zuena, baizik gure eskuetan zegoena». Bestalde, Toloaldeko bizilagun horiek herrian zabalduak idatziaz ez duela «merezitako erantzuterik» azaldu zuen Iñurritak, «dauzkan errespetu falta eta gezurrak» direla-eta.

Frontenis Txapelketa asteburu honetan eta hurrengoan

R. C. Baliarrain

Urtero bezala lagun talde batek, Baliarraingo Udalaren eta Zartagui jatetxe-aterpetxearen laguntzarekin, Frontenis Txapelketa antolatuko da. Mutilek banaka jokatuko dute, eta neskek, binaka. Partidak asteburu honetan, hau da bihar eta etzi, eta datorrenean, hilak 25 eta 26, izango dira. Antolatuak pilotalekua ezingo dela erabili gogorazi nahi izan diete, hortaz, 08:00etatik 21:00ak arte frontoia erreserbatua egongo da. Era berean, «giro polita sortuko delakoan», herritarrek gonbidatu dituzte parte hartzera, bai jokalariei bezala, eta baita ikusle moduan ere.

→ Laburrak

Festa batzordeak bilera egingo du astelehenean

LEABURU » Festa batzordeak bilera egingo du astelehenean, hilak 20, gazte gelan, 20:00etan. Festa batzordetik dei egiten diete herritarrei bertan parte hartzera.

Izaskun auzoko jaietako batzordea eratzeke deia

TOLOSA » Otsabi auzo elkarteak argitu duenez, gaur 19:00etatik aurrera Otsabin bertan (Denak tabernaren ondoan) bilera egingo dute Izaskun auzoko jaietako batzordea eratu asmoz. Bertaraterik ez dutenei datorren asteartean, hilak 21, ordu eta leku berean beste bilera bat egingo dutela jakinarazi diete.

Hainbat batzorderen bilera, hilaren 20ean

AMEZKETETA » Hirigintza/Obra, Kultura eta Ingurumen batzorderen bilera egingo dute astelehenean, hilak 20, 20:30ean udaletxeko bilkura aretoan. Bertan, besteak beste, Larraitz Bidean eraikiko diren 10 etxebizitza tasatuen baldintza agiriari buruz hitz egin eta udaleko ohiko bilkurak egiteko egunak zehaztuko dituzte.

AMAROS jatetxea

Amaroz industrialdea • Tel.. 943 67 12 96 • Tolosa

AMAROS auzoko TOLOSA

Horabide aldiaketa

Gaur hasiko dira gazteek gazteei zuzenduta antolatu dituzten jaiak

Gaur hasi eta igandera arte luzatuko dira gazte asanbladak antolatutako Gazte Festek

M. Ugartemendia Ibarra

Gaur hasi eta igandean amaituko dira Ibarako Gazte Asanbladak antolatutako Gazte Festak. Txupinazoarekin emango diete hasiera gaur iluntzean jaiak, eta goizaldera arte ez dute atsedunik hartuko. Azpimarratzekoak dira gauean Gose talde arrasatearrak eta Dolce Tangana talde tolosarrak eskainiko dituzten kontzertuak.

Larunbatean ere ez da jai giroa faltako. Aurten lehen aldiz, gazte bazkaria igandean egin beharrean larunbat eguerdian egingo



Aurten herriko haurrek herri kirolean aritzeko aukera izango dute. A.B.

dute. Arratsaldean, besteak beste, herriko Alurr taldeko dantzari gazteak ariko dira Lizarrako dantzariarekin batera, eta hiru ordu laurdenean emanaldian Errota eta Banintz emanaldiko dantza tradizionalak eta koreografiak

eskainiko dituzte. Igandean, berriz, Julio Soto eta Iker Zubeldiarekin egingo duten bertso-lunch saio bereziarekin agurtuko dituzte Gazte Festak datorren urtera arte, atsedean hartzeko aukera izango dute.

Udako ekintzetarako begirale bila dabilta Guraso Elkartekoak

Elkartekoak Frantziako Aquapark batera joango dira uztailearen 23an; izena emateko azken eguna gaur da

M.U. Areso

Urtero bezala, Aresoko Guraso Elkartek 2011 udarako hainbat ekintza antolatu ditu, eta horretarako begiraleak behar ditu.

Ekintza hauek uztailean zehar gauzatuko dira, 11:00etatik 13:00etara. Interesa dutenek aurkezpen gutuna eta proiektu bat eraman beharko dituzte, eta ezin

bestekoa izango da euskara ongi menderatzea.

Ondorengo ezaugarriak ere balaratuko dira: Heziketarekin zerkusua duen ikasketak, begirale titulua, denbora librearekin zerkusua duten ikastaroak, antzeko lanetan esperientzia izatea...

Curriculum *aresokogurasoelkartea@hotmail.com* helbidera bidali beharko da, hilaren 22a baino lehen.

Aquaparkerako izen ematea

Guraso Elkarteko kideak uztailearen 23an Frantziako Aquapark batera joango dira. Joan nahi dutenek gaur izango dute izena emateko azken eguna.

Gorritaraneke bere eguna ospatuko du

Gorritarango eguna 10:00etan hasiko da mezarekin eta 20:30ean amaituko da txokolate jatearekin

M.U. Leitza

Leitzarrek Gorritarango eguna ospatuko dute, igande honetan. Horretarako, egun guztiko jaiak antolatu dute. Egunduz egunduz diren ekitaldiez gain, trikitilariak ere giro bikaina jarriko dute. Eguraldia ona besterik ez da faltako egun borobila izateko.

↓ Egitaraua

EKAINAK 19, ETZI

- 10:00. Meza.
- Ondoren. Aizkolariak: Ruben Saralegi-Eneko Saralegi, Jon Rekondo-Mikel Zabaleta.
- Jarraian. Umeentzako jokoak.
- 14:00. Bazkaria, Basakabin.
- 17:00. XXIII. Mus Txapelketa.
- 19:00. Dantzaldia Angel Agerralderekin.
- 20:00. XXII. Txintxurri Txapelketa.
- 20:30. Zozketa.
- Ondoren. Txokolate jatea.

↓ Egitaraua

EKAINAK 17, GAUR

- 19:00etan. Txupinazoarekin emango diete hasiera gazte festei.
- 19:30ean. Banakako Pilota finala, trikitilariak lagunduta.
- 21:00etan. Paella jatea Sendi Ekintzan elkartean.
- 23:00etan. *Dilshad* Sabel Dantza taldeak emanaldia eskainiko du plazan.
- 23:30ean. Gose eta Dolce Tangana taldeen kontzertua herriko plazan.

EKAINAK 18, BIHAR

- 11:00etan. Xibaren eskutik umeentzako herri kirolak.
- 14:00etan. Gazte bazkaria Xeplan.
- 17:00etan. Umeentzako emanaldia Atarrabiako titiriteroen eskutik: *Txurrimurri Morritoston Babarrun anderearen zirkoan*.
- Ondoren. Txokolate jatea eta tortilla jatea Sendi Ekintzaren eskutik.
- 18:30ean. Lizarrako eta Ibarako dantzarien emanaldia.

- Ondoren. Elektrotxaranga kaleak animatuko ditu.
- 24:00etan. Laiotz taldearen dantzaldia.

EKAINAK 19, ETZI

- 10:30ean. Umeen 3x3 futbol txapelketa.
- 16:30ean. Helduen 3x3 futbol txapelketa.
- 19:30ean. Bertso-lunch-a, Julio Soto eta Iker Zubeldiarekin, Sendi Ekintzan. Gai jartzailea: Mattin.

Hilberriak

JOXE AYERBE ITURAIN

Ekainaren 15ean hil zen, **88** urte zituela,
Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
- Goian bego -

Bere arimaren zuzendaria: Jesus M^a Arrieta; emaztea: Juanita Zubimendi; seme-alabak: M^a Karmen eta Amadeo Rementeria, Poli eta M^a Carmen de Celis, Felipe eta Irune Ansa; bilobak: Aitor eta Alaitz, Ainhoa eta Iñaki, Marta eta Pepo, Miriam eta Manuel, Borja eta Mabel, Garikoitz eta Jordana, Maitane; birlobak: Eñaut, Pablo; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Aren eskatzen dizuete otoitz bat haren arimaren alde, eta etor zaituztela GAUR, OSTIRALA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Tolosaldeko SANTA MARIARA parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

TOLOSAN, 2011ko ekainaren 17an

Helbidea: Korro kalea, 29-1.
Oharra: Gorputz beldia Tolosaldeko FUNERARIA ORIA TANATORIOAN egongo da, OSTIRALA eguerdiko 12:00ak arte.

MANUEL EIZAGIRRE URKOLA

*Biagiak itxiaz astiro
oroitzen zaitugun aldiro
pentsatuko dugu maitekero*

Bilobak: Ander eta Hilda, Elixabet eta Sidi, Beñat eta Iraia, Amalur, Irigo, Ibai

Birloba: Maddi

TOLOSAN, 2011ko ekainaren 17an

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

HILETAREN BALIOA
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pentsatzen dugu pertsona bakoitzak bere neumiko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskuraz gurea da galdu duzuna,
baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

Alkateen elkarrizketak ▶Iker Otamendi ◊
Ikaztegiako alkatea

«Batzordeen bidez funtzionatu du udalak, eta asmo berdina dugu»

I. Garcia Ikaztegieta

Bildu koalizioko Iker Otamendi (Ikaztegieta, 1979) da herriko alkate berria. Bilduk 160 bozka jaso zituen eta lau zinegotzi lortu zituen. EAJk 98 bozka lortu zituen eta hiru zinegotzi.

Zer sentitu zenuen aginte makila jaso zenuenean?

Une polita izan zen. Ohore bat, eta ardura handi bat ere bai hainbeste pertsonen bozka jasotzerakotan. Pena ere bai, nik jasotzeak esan nahi zuelako aurreko alkateak, Eneritz Maizek, utzi egiten zuela.

Zer irakurketa egiten duzu lortutako emaitzei buruz?

Bagenekien aurreko lau urteetan

bai Eneritz Maizek bai batzordeetan aritu ziren guztiek oso lan ona egin zutela. Akaso irabazi egin genituela edo behintzat hor ibiliko ginela bai. Gero atera zen alde ez genuen inondik espero. Bosgarren zinegotzia ez genuen lortu hiru edo lau bozkengatik.

Zer balantze egiten duzu aurreko udalagindakoari buruz?

Nik uste dut sekulako lana egin dutela. Udala hartu zutenean egoera ekonomikoa ez zen ona. Orain krisiarengatik ere ez da ona. Arazo handi bat izan zuten, eskola txikia gelditu zela eta segituan jarri ziren gai horrekin. Eskolari irtenbide ezinonbea eman zaito eta handitzea lortu da. Herriko haurrek inora mugitu gabe ikasteko



I. GARCIA

aukera dute. Gero, ere berean, bultzada handia eman zaio Ekialdea deitzen den eremuari, etxebizitzaren proiektua onartu baita. Udaletxe berria ere egin dute, eta nik uste zerbitzuen aldetik ere orokorrean lan ona egin dela.

Zein dira zuen egitasmoak lau urte hauetarako?

Batez ere, aurreko udalak onartu duen etxebizitzaren proiektu hori garatzea, bai Ekialdeko eremuan, bai udaletxe zahararen atzean dagoen gunean. Ahal den heinean, alokairu soziala edo babes ofi-

zialeko etxebizitzak bultzatuz, helburua herriko gazteak bertan gelditzea da.

Udaletxe berria estreinatzea tokatuko zaizue.

Ohore bat da guretzat. Sartuko gara udaletxe berria eta polita egin dagoela, lan guztia aurrekoek egin dutela. Ikaragarri polita dago barrutik eta gozatua izango da.

Orain leku aldatzea egin behako duzue.

Ea lortzen dugun auzolanean egitea. Uste dut zailena izango dela udaletxe zaharretik zer eraman

behar den eta zer bota behar den erabakitzea.

Erronka handienetako bat udal baten funtzionamendua ikastea izango da, ezta?

Zortea dugu aurreko urteetan batzorde bidez funtzionatu duelako, eta orain ere asmo bera dugu. Lehen lanean aritu denak jarraituko duela badakigu, eta bultzatu nahi ditugu herritar gehiago ere dinamika horretan sartzera. Lege aldetik eta zinegotziak hor gaude, baina inplikazioa guztiena izango dela espero dugu, eta denen artean errazago eramatea espero dugu kudeaketa.

Zabor biltzetan gaia nola kudeatu behar dela uste duzu?

Aztertu beharreko gauza bat da. Lehenengo lana eta oso beharrezkoa dena da, jendeak kontzientzia hartu behar duela zaborra arazo handia dela. Bai Ikaztegieta mailan, bai Gipuzkoan, eztabaida kaleratu behar da eta horren arabera erabaki bat hartu.

Ikaztegiako lurretan ez bada ere, AHTren obrak oso gertu dituzue. Nola ikusten duzu proiektu hori?

Guk pertsonalki, Ikaztegieta mailan, proiektu burugabea dela uste dugu. Txikizio bat, ez dena ezertarako behar, eta sekula martxan jarri behar ez zena. Alferrikakoa iruditzen zaigu, bukaerarik ez duen zakua; lau yuppy Donostiatik Bilborajoteko.

Martzelino Dorronsoro ◊ Baliarraingo alkatea

«Etorri den jende berria udalean gehiago parte hartzera animatzen ditugu»

I. Garcia Baliarrain

Bosgarren legealdia hasi du alkate bezala Martzelino Dorronsorok (Baliarrain, 1954). Herritarrek osatutako zerrendak eskuratu zituen bost zinegotzietatik.

Zer aldatu da lehenengo aldiz alkate ardura hartu zenuenetik oraingora?

Lasaiago aurkitzen zarela, baina baita ere nekatuagoa. Aldaketa komenigarria da, baina ez da posible izan. Denak aurreneko sarre horri beldurra diote: Herri txiki batean ordu pila bat sartu behar dituzu, eta bakoitzaren lanarekin uztartu behar duzu. Herritarren aurrean ere nola ariko zaren pentsatzeak atzera botatzen du jendea.

Zinegotzi izan denak ere ez du alkate jartzeko asmorik izaten?

Jende berdintsua dabil bueltaka. Aurreko legealditik bik jarrai-

tzan dugu, eta beste hiruetatik bat, lehen, urte askotan aritutakoa da. Bi gazte sartu dira eta ikusi nahi dute ea nola moldatzen diren udalean. Gure asmoa zen etorri den jende berria inplikatzeko, baina ez dugu lortu. Animatu nahi ditugu gehiago parte hartzera. Askotan udalaren barruan ez bazaude, ez duzu ikusten nola funtzionatzen duen eta zer zailtasun dituen.

Herri txikietan lana izaten da udalean, baina ez da soldatarik jasotzen.

Hemen erabaki genuen ez kobratzea. Kobratzen duzun hori ez da ezer, eta bestetik, ikusita Baliarrain ez dagoela industriadaririk, diru guztia aprobetxatzen da herritarren alde egiteko. Zure ordue-tatik kanpo aritzen zara eta hori gogorra egiten da beti.

Lau urte hauetarako proiektu dituzue?

Dezente ditugu. Bat udaletxearen ondoan egiten ari diren erabilera anitzeko gelak dira. Lanpostuak sortzeko gela batzuk egiten ari gara eta, horrez gain, gazte eta zaharrentzako gune bat sortzen ari gara denak batera biltzeko. Azken hau garrantzitsua ikusten dugu. Erabilera anitzeko gela bat izango da eta KZgunea ere bai. Bestalde, herriko arauak agortuta ditugu eta horiekin hasi beharra dugu. Beste aldetik saneamenduaren obrak ere etorriko dira, eta horrekin batera herriko diru guztia zabalduko da. Gure asmoa ere bada energiaren alorrean zer-bait egitea. Bestalde, biodibertsitate mailan, herri basoak garbitu eta martxan jarri beharra daukagu.

Energiaren inguruan zer proiektutan ari zarete pentsatzen?

Orain hiru urte pentsatu genuen



I. GARCIA

haize errota batzuk jartzeko, baina ez du bermerik ematen haizea modu etengabe batean ez dugulako. Orain ikusi beharko genuke beste zer sistema jarri daitekeen. Energia gero eta garestiagoa da eta aurreztu beharra dago. Bestalde, herritarrek kontzientziatu behar ditugu. Herrian, bideetako argiak jaitsi ditugu jaiste dagoen guztia eta horrekin asko aurrezten ari gara.

Diru sarreren aldetik nola moldatzen da Baliarrain?

Foru Aldundiak beherakada izan

du diru biltzetan. Bertatik jasotzen dugun diruarekin ezin ditugu gastu arruntak ordaindu. Zerbait zerbitzu ere arriskuan ikusten ditugu, ez daukagulako orain dagoen mailan mantentzerik izango. Etxez etxeko laguntza gero eta gehiago eskatzen da. Hor ikusten dugu datozen urteetan arazo larriak. Azkeneko legealdian asko inplikatu da Foru Aldundia herri txikiekin, eta zerbait obra garrantzitsu egitea ahalbidetu digu azken lau urte hauetan.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

Hitza-k
Bai
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Elduain, Herrialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

- **Villabona.** Aniztasun Astearen barruan bihar, 11:30ean Errebote plazan marrazki lehiaketa. Gaia *Villabona munduan* izango da. Era berean, 11:00etatik 14:30era Berdura plazan, munduko janariak prestatzen ikasteko aukera izango da. Dastatzea irekia izango da.
- **Tolosa.** XIII. Street Basket Txapelketa izango da bihar. Izen emateko www.takesb.com helbidera idatzi behar da.
- **Areso.** Guraso elkartearen 25. urteurrena ospatuko dute bihar. 11:00etan tailerrak izango dira; 13:00etan guraso eta ikasle izan direnekin ospakizuna egingo dute; 14:00etan bazkaria izango da; eta 16:30ean zirko tailerra egingo dute.
- **Tolosa.** Tolosaldea Sahararekin elkarrekin orain arte jasotako janaria eta materiala bidaliko du bihar Saharako Tindufeko kanpalekura. Kamioia 10:00etan irtengo da suhiltzaileen ondoan dagoen parkinetik eta hau baino lehenago ekitaldi ofiziala egingo dute. 11:30ean futbol partidak izango dira Uzture frontoian, eta 22:00etan

- Oreka TX taldearen, Alurr dantza taldearen, eta Aziza Brahimen emanaldia izango da plaza Berrian.
- **Tolosa.** Denboraren Bankuak II. Truke Eguna egingo du igandearen, 10:00etatik 18:00etara Zerkausian.
- **Tolosa.** III. Iturri Mus San Joan Sarian parte hartzeko aukera zabalik dago. Izen-ematea bihar amaituko da eta horretarako Iturri Jubilatuta Elkartera joan behar da 10:00etatik 12:00etara.
- **Villabona.** Katea Etxea gaztelekuan serigrafia tailerra egingo dute ekainaren 27, 28, 30 eta uztailaren 1ean. Izena ekainak 24 bitarte eman daiteke Gaztelekuan bertan. 12 eta 17 urte artekoek 25 euro ordaindu behar dute, eta eskolak 11:30etik 14:00etara izango dira. 18 eta 29 urte bitartekoak, aldiz, 45 euro ordaindu behar dute, eta eskolak 19:30etik 22:00etara izango dira.
- **Tolosa.** Galtzaundi euskara taldeak igandean Laudion ospatuko duten Araba Euskaraz jaira joateko autobusak antolatu ditu. Hauek 09:00etan aterako dira zezen plazatik. Gal-

tzaundiko bazkideek 10 euro ordaindu behar dute, eta gainotzekoek 12 euro. Izena Galtzaundiren egoitzan eman daiteke, edo 943 65 50 04 telefono zenbakira deituta.

ERAKUSKETAK

- **Alegia.** Garai bateko Alegiako argazkiak Jubilatuen taberna hilabete bukaera arte.
- **Larraul.** Pisuak eta balantzak biltzen dituen erakusketak Ekomuseoan iraila bitarte.

KIROLA

- **Baliarrain.** Euskal Herriko III. Bakarkako Sega Ligaxkako hirugarren eta azken ekitaldia bihar, 18:00etan.
- **Tolosa.** Alpino Uzturre mendi taldeak irteera antolatu du iganderako. Burgos ingurura joango dira oraingoan. Izena emateko deitu 943 65 27 89 telefono zenbakira, edo idatzi alpinouzturre@hotmail.com helbidera.

JAIAK

- **Anoeta.** Anoetako Korputz

jaiak. Gaur 22:30ean herriko Dantza Taldearen ikuskizuna Kiroldegian. Bihar kuadrillen eguna: 12:00etan kuadrillen eguneko eguneko txupinazioa eta kalejira; 14:00etan bazkaria; 16:30ean jokoak plazan; 19:00etan kuadrillen poteoa Zozongo batukadarekin; 21:00etan kuadrillen afaria frontoian; eta 23:30ean erromeria Laket taldearekin plazan. Igandean Dantzari Txiki eguna: 10:00etan goiz osoan Baserritarren Azoka plazan; 10:30ean dantza taldeen kalejira; 12:00etan dantza taldeen emanaldia plaza txikian; eta 19:00etan Mikel Markezen eta Erramun Martikorenaren kantaldia plazan.
- **Ibarra.** Gazte Festak. Gaur 19:00etan txupinazioa; 19:30ean banakako pilota finala trikitalariz lagunduta; 21:00etan paella jatea Sendi Ekintzan; 23:00etan Dilshad sabel dantza taldea plazan; eta 23:30ean Gose eta Dolce Tangana taldeen kontzertuak plazan. Bihar 11:00etan Xibaren eskutik umeentzako herri kirolak; 14:00etan gazte bazkaria Xepian; 17:00etan umeentzako

emanaldia Atarrabiako titiriteroen eskutik; eta ondoren txokolata eta tortila jatea Sendi Ekintzaren eskutik; 18:30ean dantza emanaldia Ibarroko eta Lizarrako dantzariak, eta ondoren Elektrotxaranga kaleak animatuko ditu; 00:00etan Laiotz taldearekin dantzaldia. Igandean 10:30ean umen 3x3 futbol txapelketa; 16:30ean helduen 3x3 futbol txapelketa; eta 19:30ean bertso lunch-a Sendi Ekintzan Julio Soto eta Iker Zubeldia bertsoariekin.

ZINEMA

- **Tolosa.** Igandean Leidorren *No tengas miedo* filma 19:30ean eta 22:00etan. Astelehenean, ikuslearen eguna, film bera 20:30ean ikusi ahal izango da.

ANTZERKIA

- **Tolosa.** Italiako Girovago e Rondella taldearen *Il circo poetico* gaur, 19:00etan Euskal Herria plazan (doan). Konpainia beraren *Manoviva* Topic-en bihar, 18:30ean (haurrek 4 euro eta helduek 7 euro).

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

agurrak

Farmaziak

- GAUR**
- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amartzotz auzoa, 9. Telefonoa: 943 67 51 18.
 - **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. Telefonoa: 112.
- BIHAR**
- **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. Telefonoa: 943 65 10 45.
 - **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. Telefonoa: 112.
- ETZI**
- **Tolosa.** Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.
 - **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. Telefonoa: 112.

- ETZIDAMU**
- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. Telefonoa: 943 65 46 10.
 - **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren, 52. Telefonoa: 112.
- HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta irtizien erantzukizunik.

bertako egunkaria

902-82 02 01
(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldea.hitza.info
www.leitzaldea.hitza.info

eraman/bidaliz izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea, atzea - 20400 Tolosa

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

•Izen-abizenak: _____ •NA: _____

•Lanbidea: _____ •Jaioteguna: _____

•Helbidea: _____ •Herria: _____

•P.K.: _____ •Tel.: _____

•Posta elektronikoa: _____

•Kontu zenbakia: _____

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko, betetzeko, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak TOLOSALDEKO HITZA HERRIA HEDABIDEAK S.M.-en fitakategi automatizatuta batera pasatuko direla, enpresak dituen eskaintzen berriz emateko, zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezabatatzeko eta kontrako egiteko eskubideak erabiltzeko. Hala ere, zure datu pertsonalak ez dira bidaliko inon ere. TOLOSALDEKO HITZA HERRIA HEDABIDEAK S.M.-Arabako etorbidea 5 behea, 20400 Tolosa, edo harpidetza@hitza.info.